

1. Helburua

Lehiaketa honen helburua La Fundación-eko familiek fundazioak antolatzen dituen ekimenetan parte-hartzea sustatzea da.

2. Parte-hartzaileak

5 urte eta 11 urte bitartean dituzten La Fundación-eko **titularren seme-alabak** parte hartu dezakete (biak barne). Seme-alabak La Fundación-aren datu basean onuradun bezala alta emanda egon beharko dira.

3. Aurkeztu behar diren dokumentuak

a) Parte hartzeko **eskaera-orria beteta eta sinatuta** egon beharko da. Eskaera-orria lehiaketaren oinarriekin batera web orrialdean dagoena da, edo parte hartzeko webgunearen formularioa bidali.

b) **Marrazkiaren gaia "Gabonak"** izan behar da, eta **La Fundación-arekin lotuta izan beharko du**. Paper edo kartulina zuri batean aurkeztu behar da, DIN A5 (DIN A4 erdia) formatuan.

Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu dezake.

Beharrezkoa izango da lanak imprimatze arazoak saihesteko tolestuta ez egotea irabazlea gertatzekotan.

4. Aurkezteko lekua eta epea

Marrazkiak aurkezteko moduak:

- **Posta elektronikoz:** concurso Navidad@lafundacion.com. Kasu honetan, irabazlea izatekotan jatorrizko marrazkia eskatuko da argitaratzeko.
- **Posta arrunta erabiliz:** Fundación Laboral San Prudencio. Dato 43 Kalean (01005). Vitoria-Gasteiz.
- **Web-orrialdea:** webgunearen formularioaren bitartez.
- **La Fundación San Prudencioko bulegoetan:** Dato 43 Kalean.

Kasu guztietan, erreferentzia jarri beharko da: '2022ko Gabonetako Postal Lehiaketa'.

Postalak entregatzeko epea **azaroaren 28an** amaituko da, ordua 24etan. Epez kanpo aurkezten diren marrazkiak ez dira kontuan hartuko.

5. Irabazleen hautaketa

Epaimahaiak irabazleak hautatuko ditu eta gehiengo sinplez egingo da, eta berdinketarik egotekotan, Presidenteak kalitateko botoa izango du. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

6. Esleitzeko irizpideak

Originaltasuna, sormena, gauzatzea eta aurkezpena sarituko dira.

7. Sariak

2 sariak adinaren arabera

Saria - 5 urtetik 8 urterainoko modalitatea

Saria 200 €-ko balioa duen opari-txartela izango da, kirol, jostailu, elektronika, teknologia gai eta abarrekin trukatu ahal izango dena, gainera diploma batekin eskuratuta.

Saria - 9 urtetik 11 urterainoko modalitatea

Saria 200 €-ko balioa duen opari-txartela izango da, kirol, jostailu, elektronika, teknologia gai eta abarrekin trukatu ahal izango dena, gainera diploma batekin eskuratuta.

50€ tako 3 bonoren zozketa Caype dendan gastatzeko

50€ko 3 bonoren zozketa egingo da oinarriak betetzen dituzten haurren artean Caype dendan gastatzeko.

Irabazlearen titularrari telefonoz komunikatuko zaio horren berri. Sariak La Fundación-aren egoitzan emango zaizkie haur irabazleei. Fundazioan lan egiten duten gurasoen seme-alabek eta epaimahaiko kideen seme-alabek ezingo dute oparirik eskuratu eta ezingo dute parte hartu Caypeko bonoen zozketan.

8. Hedatzea

Marrazkia, bi irabazleen artean La Fundación-ek irizpide estetikoak eta formatuak ezagututa erabakiko duena, 2022ko Gabonetako postalaren oinarria izango da. La Fundación-ak marrazki guztien gaineko eskubide eta jabetza beretzat gordetzen du, bere webgunean, aldizkarian edo egokitzen jotzen duen beste edozein komunikazio bidean hedatu ahal izateko.

9. Oinarrien onarpena

Lehiaketan parte-hartzeak oinarrien onarpen osoa baieztatzen du.

**200€
SARIA
5-8 urte**

**GAINERA, BALDINTZAK BETETZEN
DITUZTEN ARTEAN 50€tako 3 BONU
CAYPEN ZOZKETATUKO DIRA**

**200€
SARIA
9-11 urte**